ETA, en todo caso, no tiene en su "debe" la muerte del comandante en jefe del Ejército vasco, SASETA, muerto en acción de guerra *fuera* de Euzkadi (en Asturias, ESPAÑA), contra su expresa voluntad, por orden de los dirigentes del PNV, empeñados en defender por encima de todo a la maldita República ESPAÑOLA y OPRESORA, cuando YA habíamos perdido todo lo que podíamos perder: EUZKADI.

Hay, finalmente, otra serie de calumnias (como son, por ejemplo: que ETA es una organización de resistencia "anti-franquista", tomándonos por lo que ellos mismos son; que ETA ha calificado al PNV como "fuerza sedicente nacionalista No Vasca"; ataques violentos de ETA al Gobierno del Sr. Leizaola; que éste y el Lendakari Aguirre son traidores, etc.) procedentes de los dirigentes del PNV contra ETA, plasmadas en AZKATASUNA y originadas sobre todo por la mala fe de EMPEÑARSE en confundir y mezclar VASCONIA con ETA, de la misma manera que lo hace el invasor hispano.

No merecen la pena tan siquiera de ser refutadas. Nos limitamos a invitarles a los autores de falsedades tan baratas a DEMOSTRAR y PROBAR la autenticidad de sus acusaciones, con rigor científico y con honestidad y seriedad política que requiere el caso.

El PNV se ha negado durante diez años al diálogo con ETA y la mantiene, en cambio, ¡con los ESPAÑOLES!

6

ETA, a pesar de todo, sigue estando dispuesta y abierta al diálogo franco, a todo entendimiento no solo con el PNV, sino con todo el resto de organizaciones VASCAS.

Lamentamos la división y el confusionismo que los dirigentes del PNV han creado en medio de la gran familia vasca, llevados por su ofuscación contra ETA.

Confiamos sinceramente en que el buen sentido, la justa ponderación, la prudencia política y, finalmente, su amor a EUZKADI (que -insistimos- está muy por encima de TODOS NOSOTROS), les conduzcan nuevamente al buen camino que, a su vez, diera lugar al entendimiento y coordinación entre todas las fuerzas abertzales vascas.

Concluimos haciendo un llamamiento fraternal y de todo corazón a TODAS las organizaciones VASCAS (no españolas ni francesas) existentes hoy en TODO Euzkadi y

PROPONIENDOLES públicamente y a la vista y testimonio de dos millones de vascos la celebración sin condición previa alguna de una MESA REDONDA en cualqier fecha de aquí al 15 de junio de 1964, a fin de limar directamente nuestras diferencias dentro de un espíritu de mutua tolerancia y compresión, que pudiese conducirnos a TODOS hacia un entendimiento y coordinación que redundaría en gran benefidio de Euzkadi y en perjuicio del único enemigo real de todos nosotros: el opresor extranjero.

Todo el Pueblo Vasco tiene ahora fijas sus miradas en los responsables del P.N.V. , E.T.A., etc.etc.

¿Quién de nosotros osará defraudarlo?

COMITE EJECUTIVO DE
EUZKADI TA AZKATASUNA (E.T.A.)

Euzkadi, Abril de 1.964

-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-

TXILLARDEGI-REN ITZALDIA ITSASUN

Aberkideok:

Egun haundia gaurkoa euskaldunontzat. Hogei ta zortzi urtez Euzkadi'ko eskola eta prentsa gure etsaien eskuetan egon da. Abertzaletasuna hil zela esan zaukute behin eta berriz. Eta horra hor, Gernikan, ahoz aho bilduak, 3 000 auto eta 40 000 lagun. Zer asma diteke hori baiño arrakasta haundiagorik?

Zuen bihotzak, neurea bezela, esperantxaz beteak dira, poza dariela.

Ezta harritzekorik: ederra baita euskaldun egiazkoari "Aberri Eguna" hitzek gogora dakarkioten xedea: Euskal Herriaren Batasuna eta Libertatea; Euskal Herriaren etsaiek horrenbeste maite duten muga ahalkegarri eta separatista horren akabera.

Esperantxa-giro huntan, gehiegizkoa zaio eginbidea nere mihi motelari.

Baiña badakit, eta badakizute zuek, Aberriaren oiñazea zuek eta nihaurk bezela senditu duten anitz, ehunka, millaka dudarik gabe, eztirala egun Itsasu'rat agertu ahal izan; nahi zutela berek ere etorri, guk bezela. Baiñan ezin.

Eta horiengatik bai. Ixillik eta mutu egon behar dutenen ezintasun horrek, bizkortu egin nau: haizu bekit hunat etor ezin ditezkean zoritxarreko horien hirritsa,hitz gutitan aipatzea.

------------

Eta nor dira Itsasu'rat azaltzerik izan eztuten horiek? Zenbat, jaun-andereok!

Gure herriaren alde hil ziran gudari zintzoak gogoratzen zaizkit aurrenik; eta, zembait aldetan bederen, beren sakrifizio izigarrien frutua ikusten dut lardazkaturik eta usteldurik. Baiña, ez, gudari maiteok: fruituaren hazia ezta ihartu; eta hemen gaituzute, Itsasu'rat bildurik, hala dela adierazteko.

Hitzegin bezate nere ahotik ere presondegietan egun guziez eta egun guziaz aspaldi ezkeroztik bizia eskeintzen eta xahutzen duten Euskal Herriko seme leial eta prestuek.

Mintza bekizkizue nere ahotik sorlekua utzi behar izan dutenak oro. Beren sorterria maite dutelako joan-araziak batzuk (eta, denbora berean, gorroto dutenako nagusi!). Beren herrian bizi-molderik atxeman eztutelako joan-araziak besteak, millaka, ezpaita askotan politziaren beharrik jendea urrun-arazteko: aski baita ekonomiaz herri bat hiltzera kondenatzea

ETA, a pesar de todo, sigue estando dispuesta y abierta al diálogo franco, a todo entendimiento no sólo con el PNV, sino con todo el resto de organizaciones VASCAS.

Lamentamos la división y el confusionismo que los dirigentes del PNV han creado en medio de la gran familia vasca, llevados por su ofuscación contra ETA.

Confiamos sinceramente en que el buen sentido, la justa ponderación, la prudencia política y, finalmente, su amor a EUZKADI (que —insistimos— está muy por encima de TODOS NOSOTROS), les conduzcan nuevamente al buen camino que, a su vez, diera lugar al entendimiento y coordinación entre todas las fuerzas abertzales vascas.

Concluimos haciendo un llamamiento fraternal y de todo corazón a TODAS las organizaciones VASCAS (no españolas ni francesas) existentes hoy en TODO Euzkadi y PROPONIENDOLES públicamente y a la vista y testimonio de dos millones de vascos la celebración sin condición previa alguna de una MESA REDONDA en cualquier fecha de aquí al 15 de junio de 1964, a fin de limar directamente nuestras diferencias dentro de un espíritu de mutua tolerancia y comprensión, que pudiese conducirnos a TODOS hacia un entendimiento y coordinación que redundaría en gran beneficio de Euzkadi y en perjuicio del único enemigo real de todos nosotros: el opresor extranjero.

Todo el Pueblo Vasco tiene ahora fijas sus miradas a los responsables del PNV, ETA, etc., etc.

¿Quién de nosotros osará defraudarle?

COMITE EJECUTIVO DE
EUZKADI TA AZKATASUNA
(E. T. A.)

Euzkadi, abril de 1964

## TXILLARDEGI-REN ITZALDIA ITSASUN

Aberkideok:

Egun haundia gaurkoa euskaldunontzat. Hogei ta zortzi urtez Euzkadi'ko eskola eta prentsa gure etsaien eskuetan egon da. Abertzaletasuna hil zela esan zaukute behin eta berriz. Eta horra hor, Gernikan, ahoz aho bilduak, 3 000 auto eta 40.000 lagun. Zer asma diteke hori baiño arrakasta haundiagorik?

Zuen bihotzak, neurea bezela, esperantxaz beteak dira, poza dariela.

Ezta harritzekorik: ederra baita euskaldun egiazkoari "Aberri Eguna" hitzek gogora dakarkioten

xedea: Euskal Herriaren Batasuna eta Libertatea; Euskal Herriaren *etsaiek horrenbeste maite duten* muga ahalkegarri eta separatista horren akabera.

Esperantxa-giro huntan, gehiegizkoa zaio eginbidea nere mihi motelari.

Baiña badakit, eta badakizute zuek, Aberriaren oiñazea zuek eta nihaurk bezela senditu duten anitz, ehunka, millaka dudarik gabe, eztirala egun Itsasu'rat agertu ahal izan; nahi zutela berek ere etorri, guk bezela. Baiñan ezin.

Eta horiengatik bai. Ixillik eta mutu egon behar dutenen ezintasun horrek, bizkortu egin nau: haizu bekit hunat etor ezin ditezkean zoritxarreko horien hirritsa, hitz, gutitan aipatzea.

* * *

Eta nor dira Itsasu'rat azaltzerik izan eztuten horiek? Zenbat, jaun-andereok!

Gure herriaren alde hil ziran gudari zintzoak gogoratzen zaizkit aurrenik; eta, zembait aldetan bederen, beren sakrifizio izigarrien frutua ikusten dut lardazkaturik eta usteldurik. Baiña, ez, gudari maiteok: fruituaren hazia ezta ihartu; eta hemen gaituzute, Itsatu'rat bildurik, hala dela adierazteko.

Hitzegin bezate nere ahotik ere presondegietan egun guziez eta egun guziaz aspaldi ezkeroztik bizia eskeintzen eta xahutzen duten Euskal Herriko seme leial eta prestuek.

Mintza bekizkizue nere ahotik sorlekua utzi behar izan dutenak oro. Beren sorterria maite dutelako joan-araziak batzuk (eta, denbora berean, gorroto dutenako nagusi!). Beren herrian bizi-molderik atxeman eztutelako joan-araziak besteak, millaka, ezpaita askotan politziaren beharrik jendea urrunarazteko: aski baita ekonomiaz herri bat hiltzera kondenatzea...


Bada, bukatzeko, hunat ezinik, oraindik hitzegiten ezin dezakean euskaldun andana haundi bat, ni gehienik kezkatzen nauena: biharko Euskal Herrikoa; gure ondorengoek, gure haurrek, gure gazteek osatzen dutena. Horien guzien abotsa nahi dut beraz nik hemen entzutea.
===============
Eta, zer diote horiek guziek? Hunat hemen, argi eta garbi, erran zaharraren arabera: "ALDI JOANA EZTA ITZULTZEN". Guk ezin -diote. Itsasurat joan zeratenok, bai. Zer eginen duzute, beraz, ahal duzutenok, Euskal Herriaren ondasunak zuen beleun-aldian gal eztitezen?
Aspaldiko euskaldunak, hau gauza jakiña da, etziren Euskal Herritik at jalgitzen gerlan. HARISPE marexal famatuak, gonbarazio batereako, hunengatixek izan zituen Napoleon'ekin liferentziarik larrienak.
Azken denboretako kondaira irakurtzen dugunian, aldiz, eta euskaldunen arteko herrak eta gorrotoak ikusten ditugunean, denak Euskal Herriaren kaltetan, harriturik golditzen gera, pentsatuz: baiña, nola liteke hori? Nola liteke hainbeste itsutasun? Nola hil ziren euskaldunak behin eta berriz, nola hil dira oraintsu arte? Ausardiaz beterik, bai; baiñan atzerriko alderditan zatikaturik, eta atzerritarren zerbitzuko? Nola etzuten, hitz batez, ABERTZALE-ERRSISTENTZIA sortu, edozein herrik egin duen bezelaxe, erbesteko buruzagiak arbuiatuz, eta bertako traidoreak merezi duten eran hartuz? Nola etzuten ikusi, Euzkadi'ri buruz ez-baiñan Espaiñia'ri edo Fraintzia'ri buruz sortzen zirala beren arteko ezin-ikusiak eta gerlak? Nondik etorri zaigu gure egitkizuna kanpoan jokatu nahi hau?
On izan gera Amerika guzia libratzeko eta gobernatzeko. Baiñan geure etxean kanpotarrak nagusitu zaizkigu! Paris'eko eta Madrille'ko gobernuek aisago ukaiten dute gure laguntza beroa, Iruña'n behar ginukean geure abertzale-gobernuak baiño! Noiz deliberatu behar dugu gure etxean berriz gihaur nagusitzera?
Aberkide maiteok: ez zalantzarik egin. Horixe esaten daukute hunat ezin etorriek. Gehiago diote. Zeren-eta Euskal Herriaren heiña ezpaita edonoiz bezelakoa. Euskal Herria azkenetan baitago, arroztuta, erdaldunduta, bere izana bera turismo-izen billakatua; bere nortasuna, bere batasuna eta bere naziotasuna eman dizkion mintzaira heriotzak joa.
Orain arte, ondorengoei Euskal Herria bizkor ala makal, gotor ala ahul, uztea zen kontua. Orain, aldiz, BIZIRIK uztea, ala HILLIK Euskal Herririk UZTEA, ALA EZ UZTEA !!
"Aldi joana -berriz diot- ez itzultzen". Gure herriaren arima salbatzea azkeneko aldiz da posible.
ORAIN, ALA NEHOIZ EZ ! EGUN, ALA SEKULAN EZ !
GEUK, ALA NEHORK EZ !
Euzkadi bereala sortu, ala Euskal Herria ehortzi.
Egia garratzak, baiñan egia haundiak.
-------------
Eztugu guk bestek bezela ikusten biharko Euzkadi'ko erresuma. Gisa da hunela gertatzea.
Euskal Politika nahi dugu guk, bistan da, Libertatean herriaren eskuetan, eta herriaren zerbitzuko. Eta hunen gatixek, eta huntarakoxe, legeen letra hutsak berdintasuna emaiten eztuelako, aldakuntza sakonak proposatzen ditugu: jakintzaren maillan, eta ekonomiaren maillan batez ere, nahi dugun Euzkadi sozialista'ri dagokionez.
Kanbiamendu hauetaz beldur diranak, gogaide ditugu askatasun edo libertatearen nahiean; baiñan ez gaiñerakoetan. Eta mundu guzian Hunela da. Abertzaleen artean baditugu, gaur, sozialistak eta liberalak, baditugu ezkertarrak eta eskuindarrak. Beharrik! Bazen garaia!
Baiñan, edozein herritan halere, Aberria galtzeko zorian jarri denean, Abertzale-Erresistentzia sortu da, askatasun-nahi hortan denek alkar-harturik. Liberalak eta sozialistak, eskuindarrak eta ezkertarrak, alkartu egin dira nun-nahi, Aberria begiratzeko. Zergatik ez gurean ?
Eztugu ETA-kook besterik eskatzen aspaldi huntan; eta horrela izan dedin urratsak emaiten ari gera, behin eta berriz. Gaur Abertzale-Erresistentzia horren tenorea baita. Alperrik halere oraingoz. Beaumont'eko Luis madarikatu haren izpiritua Euskal Herrian barrena dabil oraiño...
Baiña Abertzale-Erresistentzia hori egin eginen da, sortzen hasia da; eta laister, egiazko abertzale guziek osatua, Euzkadi'ko berritsu eta etsai guziak utziko ditu alde batera. Euskal Erresistentzia sortu.
Ala, KITTO !! Horra hor etorri eztiramen mozua. Erabaki dezagun, delibera dezagun kontuten hartzera. Eta garaitzapena geurea izanen da!
GORA EUZKADI ASKATUTA !!

Bada, bukatzeko, hunat eziñik, oraindik hitzegiten ezin dezakean euskaldun andana haundi bat, ni gehienik kezkatzen nauena: biharko Euskal Herrikoa; gure ondorengoek, gure haurrek, gure gazteek osatzen dutena. Horien guzien abotsa nahi dut beraz nik hemen entzutea.

* * *

Eta, zer diote horiek guziek? Hunat hemen, argi eta garbi, erran zaharraren arabera: "ALDI JOANA EZTA ITZULTZEN". Guk ezin -diote. Itsasurat joan zeratenok, bai. Zer eginen duzute, beraz, ahal duzutenok, Euskal Herriaren ondasunak zuen belaun-aldian gal eztitezen?

Aspaldiko euskaldunak, hau gauza jakiña da, etziren Euskal Herritik at jalgitzen gerlan. HARISPE marexal famatuak, gonbarazio batereako, hunengatixek izan zituen Napoleon'ekin liferentziarik larrienak.

Azken denboretako kondaira irakurtzen dugunian, aldiz, eta euskaldunen arteko herrak eta gorrotoak ikusten ditugunean, denak Euskal Herriaren kaltetan, harriturik gelditzen gera, pentsatuz: baiña, nola liteke hori? Nola liteke hainbeste itsutasun? Nola hil ziren euskaldunak behin eta berriz, nola hil dira oraintsu arte? Ausardiaz beterik, bai; baiñan atzerriko alderditan zatikaturik, eta atzerritarren zerbitzuko? Nola etzuten, hitz batez, ABERTZALE-ERRESISTENTZIA sortu, edozein herrik egin duen bezelaxe, erbesteko buruzagiak arbuiatuz, eta bertako traidoreak merezi duten eran hartuz? Nola etzuten ikusi, Euzkadi'ri buruz ez-baiñan Espaiñia'ri edo Fraintzia'ri buruz sortzen zirala beren arteko ezin-ikusiak eta gereak? Nondik etorri zaigu gure eginkizuna kanpoan jokatu nahi hau?

On izan gera Amerika guzia libratzeko eta gobernatzeko. Baiñan geure etxean kanpotarrak nagusitu zaizkigu! Paris'eko eta Madrille'ko gobernuek aisago ukaiten dute gure laguntza beroa, Iruña'n behar ginukean geure abertzale-gobernuak baiño! Noiz

deliberatu behar dugu gure etxean berriz gihaur nagusitzera?

Aberkide maiteok: ez zalantzarik egin. Horixe esaten daukute hunat ezin etorriek. Gehiago diote. Zeren-eta Euskal Herriaren heiña ezpaita edonoiz bezelakoa. Euskal Herria azkenetan baitago, arroztuta, erdaldunduta, bere izana bera turismo-izen billakatua; bere nortasuna, bere batasuna eta bere naziotasuna eman dizkion mintzaira heriotzak joa.

Orain arte, ondorengoei Euskal Herria bizkor ala makal, gotor ala ahul, uztea zen kontua. Orain, aldiz, BIZIRIK uztea, ala HILLIK! Euskal Herririk UZTEA, ALA EZ UZTEA!!

"Aldi joana —berriz diot— ez itzultzen". Gure herriaren arima salbatzea azkeneko aldiz da posible.

ORAIN, ALA NEHOIZ EZ!
EGUN, ALA SEKULAN EZ!

GEUK, ALA NEHORK EZ!

Euzkadi bereala sortu, ala Euskal Herria ehortzi.

Egia garratzak, taiñan egia haundiak.

* * *

Eztugu guk bestek bezela ikusten biharko Euzkadi'ko erresuma. Gisa da hunela gertatzea.

Euskal Politika nahi dugu guk, bistan da, Libertatean: herriaren eskuetan, eta herriaren zerbitzuko. Eta hunen gatixek, eta huntarakoxe, legeen letra hutsak berdintasuna emaiten eztuelako, aldakuntza sakonak proposatzen ditugu: jakintzaren maillan, eta ekonomiaren maillan batez ere, nahi dugun Euzkadi sozialista'ri dagokionez.

Kanbiamendu hauetaz beldur diranak, gogaide ditugu askatasun edo libertatearen nahiean; baiñan ez gaiñerakoetan. Eta mundu guzian hunela da. Abertzaleen artean baditugu, gaur, sozialistak eta liberalak, baditugu ezkertarrak eta eskuindarrak. Beharrik! Bazen garaia!

Baiñan, edozein herritan halere, Aberria galtzeko zorian jarri denean, Abertzale-Erresistentzia sortu da, askatasun-nahi hortan denek alkar-harturik. Liberalak eta sozialistak, eskuindarrak eta ezkertarrak, alkartu egin dira nun-nahi, Aberria begiratzeko. Zergatik ez gurean?

Eztugu ETA-kook besterik eskatzen espaldi huntan; eta horrela izan dedin urratsak emaiten ari gera, behin eta berriz. Gaur Abertzale-Erresistentzia horren tenorea baita. Alperrik halere oraingoz. Beaumont'eko Luis madarikatu haren izpiritua Euskal Herrian barrena dabil oraiño...

Baiña Abertzale-Erresistentzia hori egin eginen da, sortzen hasia da; eta laister, egiazko abertzale guziek osatua, Euzkadi'ko berritsu eta etsai guziak utziko ditu alde batera. Euskal Erresistentzia sortu.

Ala, KITTO!! Horra hor etorri eztiranen mezua. Erabaki dezagun, delibera dezagun kontutan hartzera. Eta garaitzapena geurea izanen da!

GORA EUZKADI ASKATUTA!!